

## ERREGISTROAN EDO UDALEKO WEB ORRIAN EGITEN DIREN ESKAEREN INGURUKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14an Zerbitzu orokorretako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Herritar eta eragileek Udalinfoko zerbitzuan egiten dituzten eskaerak goizero iristen zaizkigu alderdi politikoei erregistroaren bidez. Alde batetik, egunero jasotzen dugun erregistroaren bidez, idatziz egindako eskaerak eta txostenak jasotzen ditugu. Bestetik, Udaleko web orriaren bidez hiritarrek egiten dituzten iradokizunak eta kexak jasotzen ditugu.

Nahiz eta Udalinfoko langileek lehenengo harrera egiten dieten eragile eta biztanleei, eskaera egiten duena erantzun baten zain gelditzen da. Horregatik, beharrezkoa da prozedura finko bat ezartzea Udal Gobernuako ordezkarien artean, eskaera horiek erantzuna jasoko dutela bermatzeko.

Ekainetik, erregistroaren bidez egindako eskaeren jarraipena egin dugu eta norbanakoek edo eragileek egindako eskaera eta kexa ugari aztertu ditugu: laguntza sozialak eskatzen dituzten herritarrak, informazio zehatz bat behar duten eragileak, salaketa bat egiten duten bizilagunak, etab. Horietako askok oraindik ez dute erantzunik jaso Udal Gobernuaren aldetik eta kasu batzuetan, hainbat pertsona eta eragile oposizioan gauden alderdi politikoekin harremanetan jarri dira egoera hau salatzeke.

2015eko abenduaren 14an egindako Zerbitzu Orokorretako batzordean, interpelazio bat aurkeztu genuen Udal Gobernuaren utzikeria salatuz eta adibide zehatzak mahai gainean jarritz. Juan Ramón Viles Mitxelena jaunak aitortu zuen ez zuela adibide horien berri eta prozedura bat jarriko zuela martxan hiritarren kexa, iradokizun eta eskaerei era eraginkor batean erantzuteke.

Dagoeneko bi hilabete joan dira eta arazoak mahai gainean jarraitzen du, urtarrilean hiritarrek eta hainbat eragilek publikoki salatu dutelarik.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari aztertu dezala Udalinfoko erregistrotik edo web orrialdearen bidez hiritarrek egiten dituzten eskaera guztiei erantzuna ematen zaien edo ez eta zenbateko epearekin.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, hiritarrek idatziz egiten dituzten eskaeren inguruan, gehienez bi hilabeteko epean erantzun bat emango zaiela berma dezala.

Donostian, 2016ko urtarrilaren 22an

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**